



NOLA BELZTU BEHAR ZURIA

Joxan ARTZEren poemak

Bide Ertzean eta Metrokoadrokaren eskutik

Nola belztu behar zuria

Joxan Artzek “Heriotzaren ataria dugu bizitza” eta “Bizitzaren atea dukegu heriotza” izeneko poesia liburuak kaleratu ditu Elkar argitaletxearen eskutik. Bertako poemak oinarri hartuta poesia eta musika emanaldia sortu dute Bide Ertzean taldeak eta Metrokoadroka kolektiboak: zazpi poema kanta bihurtu eta beste hogeitau inguru errezitatuko dituzte.

Emanaldia osatzeko orduan beren ohiko errezitaldietatik haragoko bidea egiten saiatu dira egileak: Bide Ertzean taldekoek pop-folk doinuen bidea hartu dute musikalki, Metrokoadroka kolektiboko kideek teatro ukituak dituen errezitateak egin dituzte, bien estiloak elkartuta eta gurutzatuta emanaldi propio eta ez ohikoa sortuz.

Edukiei dagokionez, liburuek jorratzen dituzten gaietan barrena osatu dute ibilbidea egileek: maitasuna, bizitza-heriotza, ama-aita, itsu-mutu-gorkeria, olerkaria zuria belzteko tenorean... Artzeren idazkerak dituen ardatzak hartu dituzte aintzat horretarako zuzenekoan: musikaltasuna, erritmoa, irudi kateatuak, hitz jokoak, sakontasun lirikoa.

Nola belztu behar zuria, funtsean, Joxan Artzeren poesiaren mundu zabala ahots eta doinuz jantzi nahi duen emanaldia da.

Emanaldia DVDan

Nola belztu behar zuria enkarguz sortu zuten egileek, Jexux Artze kultur elkartearen eskariz. Lehen emanaldia Usurbilgo Sutegi aretoan izan zen, 2014ko maiatzaren 3an. Emanaldiak izan duen harrera ona ikusita, DVD euskarrian grabatu eta plazaratzea erabaki zuten egileek, Joxan Artzeren libururik berrienak plazaratu dituen ELKAR argitaletxearen eskutik.

DVDa 2015eko irailean aurkeztuko da.

Harremanetarako

Imanol Ubeda
647765968
imaubeda@hotmail.com
<http://bidertzean.com/>

Oier Guillan
679977276
oierguillan@hotmail.com
<http://metrokoadroka.eus/>

FITXA ARTISTIKOA

Egileak:

Bide Ertzean eta Metrokoadroka.

Musika:

Bide Ertzean; Imanol Ubeda, Joni Ubeda, Karlos Aranzegi.

Errezitaldi dramatizatua:

Metrokoadroka; Asier Sarasola, Oier Guillan.

Testuak:

Joxan Artze, *Heriotzaren ataria dugu bizitza eta Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar, 2013) poesia liburuak oinarri hartuta.

Kartela eta iruditeria:

Idoia Beratarbide.

BEHAR TEKNIKOAK:

Espazio eszenikoa:

7 x 5 (aztergarria).

Iraupena:

50 minutu.

Argia:

Lekuaren arabera moldagarria.

Antzoki formatuan (lekuaren arabera aztertzeko).

Aurreikuspena formatu ertain-txikian: 7 PAR 64 n5 + 6 PC

Argi materialik ez dagoen lekuetan gurea eramatea azter liteke.

Argi mahaia eramango genuke, DMX seinalea eszenatokian, ezkerreko aldean.

Beharrezko pertsonala: Argi teknikari bat, soinu teknikari bat.

Muntai denbora: 5 ordu emanaldia baina lehen, gutxienez, lekuaren egoera teknikoaren arabera.

Soinua:

BIDE ERTZEAN “Nola belztu behar zuria”

Channel	INSTRUMENT	MIC	INSERT
1	BOMBO	AKG 112	COMP
2	Kaja	sm57	COMP
3	Kaja azpia	sm57	
4	Txarles	AKG451	
5	Tom	Shure sm 98	
6	F tom	Shure sm 98	
7	OH l	AKG 451	
8	OH r	AKG 451	
9	Bass line	Inyeccion	COMP
10	Bass mic	AKG 112	COMP
11	Acoustic-line (Imanol)	Inyeccion	COMP
12	Percusion mic	sm 57	
13	Lead vocal Imanol	sm 58	COMP
14	Koro r Joni	sm 58	
15	Vox Poeta Oier Guillan	sm 58	COMP
16	Vox Poeta Asier Sarasola	sm 58	
FX	Reverb TC 2000		
	Reverb Lexicon PCM/60,70,90		
	Delay TC D-TWO,M-one tap		

POETAK
Oier Guillan
Asier Sarasola

GUITAR-VOX
Imanol


DRUMS (Karlos)
Percusion sm 58

BASS-VOX
Joni

Vocal sm 58,
Vocal sm 58

Vocal sm 58
+ Acoustic-line

MIC 112+DI
Koro sm 58



Argi korronte hartunea

Argi korronte hartunea

Argi korronte hartunea

ERANSKINAK

Artikulua BERRIAN:

http://paperekoa.berria.eus/plaza/2014-05-03/034/001/artzeren_bi_ahotsak.htm

Artzeren bi ahotsak

Joxan Artzeren omenez, Bide Ertzean taldeak, Asier Sarasolak eta Oier Guillanek 'Nola belztu behar zuria' poesia eta musika ikuskizuna estreinatuko dute gaur gauean, Usurbilen (Gipuzkoa). (Ane Urrutikoetxea, Usurbil)



Bide Ertzean taldea, Asier Sarasola eta Oier Guillan, atzo Usurbilen egindako entseguan. / JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Usurbilgo Sutegi kultur etxean instrumentuen kaxak gora eta behera ibili dituzte egun hauetan. Aspaldi elkar ikusi gabe egon ondoren bildutako lagun zaharren antzera, Bide Ertzean taldeko kideak eta Metrokoadroka kolektiboko Asier Sarasola eta Oier Guillan deklamatzailerak lehen aldiz bildu dira elkarlanean, eta omenaldi berezia egingo diote gaur 22:00etan Joxan Artzeri (Usurbil, Gipuzkoa, 1939). *Nola belztu behar zuria* lelopean, poesia eta musika biltzen dituen ikuskizuna eskainiko du boskoteak, Artzeren *Heriotzaren ataria dugu bizitza* eta *Bizitzaren atea dugu heriotza* (Elkar, 2013) poesia liburuak oinarri hartuta.

Aurretik elkar ezagutu arren, lehen aldia da bostek batera lan egingo dutena. Eskaini behar duten ikuskizuna ere estreinaldia da; alde batetik, Sarasolak eta Guillanek Artzeren hainbat poema errezitatuko dituzte, irakurketa erritmo eta doinuekin lagunduta, eta bestetik, Bide Ertzean taldeak zazpi kanta berri sortu ditu Artzeren olerkiekin, ikuskizunean espresuki aurkezteko asmoarekin. Hala, emanaldiak bi aurpegi izango ditu: bata esperimental eta bestea liriko. Jexux Artze kultur elkartearen enkarguz sortu dute ikuskizuna, Joxan Artzeren onspenarekin.

Bosten arteko elkarlana «erraza eta oso naturala» izan da, Guillanen eta Bide Ertzean-eko Imanol Ubedaren esanetan. Poetaren lana ulertzeko bi modu bildu dituzte, eta bakoitzak bere estilora eraman ditu aukeratutako olerkiak. Elkarren artean kontrastea sortzen duten bi ahotsen bilketa izan da emaitza, Guillanen arabera. «Elkar ezagutzen genuenez, erraza izan da Asierrek eta biok sortu dugunaren eta Bide Ertzean-eko kideek egin dutenaren artean koherentzia duen ikuskizun bat egitea. Gure aldetik, aurretik Artzerekin harremana izan dugunez, oso gertukoa egin zaigu haren olerkiekin lan egitea». Artzek Sarasola eta Guillanekin kolaboratu zuen Mikelazulo kultur etxean. «Elkarlan horren ondorioz, bion lanean eragin zuzena izan du Artzek. Ahozkotasunarekin eta performanceekin harremana izan du, eta bere idazteko moduan musikaltasunak garrantzi handia dauka». Errezitatzekeo errazak dira Artzeren olerkiak Guillanentzat, eta Sarasolarekin batera, etengabeko elkarrizketa baten moduan banatu dituzte testuak. «Artze errepikapenarekin jolasten da, baita gu ere. Bi ahotsetan errezitatzen ditugu testuak, bata bestearekin nahastuz eta esaldiak kateatuz. Txalaparta jotzearen modukoa da egiten duguna; batzuetan, batek soinuak egiten ditu besteak irakurtzen duen bitartean, etengabe elkarri lekukoa emanez».

Folk estiloan

Artzeren idazteko moduak alde esperimentalak eta lirikoak biltzen ditu bai Guillanentzat eta bai Ubedarentzat. Testuen aukeraketa elkarrekin egin dute, eta ondoren, bakoitzak bere eremura eraman ditu. Bide Ertzean-ek alde lirikoak landu du; horretarako, poema liburuan agertzen diren eskuz idatzitako olerkiak erabiliz, Ubedaren hitzetan. «*Kantua* hitza erabiltzen du Artzek olerki horietan, eta horregatik aukeratu ditugu. Abestiak sortzerakoan, poemari eman diogu garrantzia, musikaren gainetik». Azkenaldian taldea rock eta musika elektronikora hurbildu bada ere, sortutako zazpi abesti horietan folk estiloa erabili dute, olerkiekin hobekien bat egiten duen estiloa delako. «60-70eko hamarkadetakoko folk amerikar kutsuko abestiak sortu ditugu, gure ustez Artzeren mundua ederki janzten duelako».

Ikuskizuna ehun lagun ingururentzat sortu dute, baina berriz egitea gustatuko litzaietke Guillani eta Ubedari. «Batzuetan eskertzen da ikusle kopuru txikiagoarekin lan egitea. Orainari begiratuko diogu, baina emanaldi honek bibrazio onak ematen dizkigu, asko gozatu baitugu elkarrekin lan egiten».

ESTREINALDIKO ARGAZKIAK
Egilea: Ibai Arrieta.



